

Topalekua

91 zk. 2016ko iraila

septiembre 2016 - n.º 91

1-2. orr.: Gizarte-Kontseiluaren osoko bilkurak irakasle eta ikertzaileentzako Ordainsari Osagarri Gehigarrien VI. deialdia onetsi du

2-3. orr.: UPV/EHUk hobera egin du helburu sozialak betetzean,

«Kontuak emateko adierazle-sistema» txostenaren arabera

4. orr.: UPV/EHU CYD txostenak aztertutako nazioarteko sailkapen nagusietan ageri da

GIZARTE-KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAK IRAKASLE ETA IKERTZAILEENTZAKO ORDAINSARI OSAGARRI GEHIGARRIEN VI. DEIALDIA ONETSI DU

Joan den uztailaren 22an egindako Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2016. urteari dagokion Ordainsari Osagarri Gehigarrien VI. Deialdia onetsi zuen, UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileek, Eusko Jaurlaritzaren 209/2006 Dekretuan ezarritakoari jarraiki, irakaskuntza- eta ikerketa-arloetan egindako merituak aitortzen dituzten osagarri horiek esleitzea eskatu ahal izan dezaten.

Deialdia irailaren 8ko EHAOn argitaratu zen, eta bertan osagarriak eskatzen dituzten irakasleek ordainsari osagarriak jaso ahal izateko edo aurreko deialdietan esleitutakoak kontsolidatzeko bete behar dituzten epeak, modua eta betekizunak ezartzen dira eta ordainsari osagarriak hiru mailatan sailkatzen dira: A maila, bikaintasuna aitortzera zuzendua; B maila, kalitatea eta etengabeko hobekuntza balioesten dituen; eta C maila, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean egindako jardun profesionala saritzen duena.

2015eko Txosten Ekonomikoa eta elkarlanerako bekak

Gizarte Kontseiluak, halaber, 2015. urteari dagokion UPV/EHUren aurrekontuetako kontabilitate-egoerak ere onetsi zituen; ekitaldi horretan unibertsitate publikoak 212000 euroko

superabita izan zuen. Ekonomia eta finantzei buruzko informazio hori Univesidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak unibertsitateko gobernu-organoari aurkeztu zion, gizarteari kontuak emateko prozesuaren esparruaren barruan.

Osoko Bilkurak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 2016-2017 ikasturterako deitutako elkarlanerako 5 beken banaketa ere aztertu zuen, eta beka horiek Materialen Fisika; Fisika Aplikatua I; Neurozientziak; Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia eta Azterketa Ekonomikoen Funtsak I departamentuei esleitzea onartu. Kontseiluaren akordioak aurreikusten duenez, aipatutako departamenturen batean hautagairik egon ezean, eman gabeko elkarlanerako beka eskatu duten ikasleen artean batez besteko notarik altuena duenari emango zaio, deitutako beka guztiak esleitu arte.

Ikasketa osagarriak eta titulu propioak

Matrikulen prezioei dagokienez, Kontseiluak graduondoko 6 Titulu Propio sortu berriren prezioak ezarri, beste zazpiren matrikula-tasak aldatu eta hogeita batenak bere horretan utzi zituen. Atal berean, Unibertsitateko hiru

(2. orrietan jarraitzen du)

UPV/EHUK HOBERA EGIN DU HELBURU SOZIALAK BETETZEAN, «KONTUAK EMATEKO ADIERAZLE-SISTEMA» TXOSTENAREN ARABERA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak hobera egin du UPV/EHUKo Gizarte Kontseiluak 2008az geroztik urtero Unibertsitatearen helburu sozialen betetze-maila neurtzeko egiten duen «Gizarteari kontuak emateko UPV/EHUKo adierazle-sistema» azterketako 20 adierazle gehienetan.

2016ko azterketa (2013-2014 ikasturteko informazioa jaso eta aurreko urtekoarekin eta serie historikoarekin alderatzen du) Gizarte Kontseiluaren azken Osoko Bilkuran aztertu zen. Bertan egiaztatzen denez, Unibertsitate publikoak hobera egingu aztertutako 20 adie-

razleetatik 12tan eta hobekuntza hori nabarmena da azterketa banatuta dagoen 9 alorretatik 8tan: finantzaketa (alorreko bi adierazleetako batean hobera egin du, gizartean duen txertatze-maila, prestakuntza (lau adierazleetako hirutan hobera egin du), ikerketa (lautik bitan hobera egin du), internazionalizazioa (bitan hobera egin du), ospea (mailari eutsi dio), hizkuntza-normalizazioa (hobera egin du) eta gizarte-erantzukizuna (batean hobera egin du, besteari eutsi dio).

Hobekuntza are nabarmengarriagoa eta adierazkorragoa da epe luzeko eboluzioa aintzat hartuz gero, 20 adierazleetatik 5etan bakarrik okerrera egin baitu:

ALORRAK	ADIERAZLEAK	EBOLUZIOA	
		Epe luzera	Azken datua
1. FINANTZAKETA	1. Transferentzia korronteak/gastu korronteak	↑	↑
	2. Ikasle bakoitzeko gastu korrontea	↓	↓
2. TXERTATZE-MAILA	3. UPV/EHUKo estaldura-tasa	=	↑
3. PRESTAKUNTZA	4. Ikasketak uzteko tasa	↓	↓
	5. Errendimendu-tasa	↑	↑
	6. Arrakasta-tasa	↑	↑
	7. Ebaluazio-tasa	↑	↑
4. INGURUAREN BEHARRETARA EGOKITZEA	8. Unibertsitateko tituludunek jasotako gaitasunen erabilgarritasunaren balorazioa	=	↓
	9. Ahokatutako enplegu-tasa	↓	↓
	10. Lehen enplegua lortu arteko denbora	↑	↑
5. IKERKETA	11. Kontratazio zuzenetik datozen diru-sarreraren tasa	↓	↓
	12. Doktoretza-tesiak 100 irakasleko	↑	↑
	13. Patente-eskaerak biztanle-milioiko	↑	↓
	14. Ekoizpen zientifikoa 100 irakasleko	↑	↑
6. INTERNAZIONALIZAZIOA	15. Graduan eta lehen eta bigarren zikloan matrikulatutako ikasle atzerritarren tasa	↑	↑
	16. Atzerriko unibertsitateetatik datozen ikasleen tasa master ofizialetan	↑	↑
7. OSPEA	17. Kalitate/bikaintasun-aipamena duten doktoretza-programen ehunekoa	↑	=
8. HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA	18. Euskarazko graduako eta lehen eta bigarren zikloko kredituen tasa	=	↑
9. GIZARTE-ERANTZUKIZUNA	19. Emakumezko irakasle eta ikertzaile doktoreen tasa	↑	↑
	20. Graduako eta lehen eta bigarren zikloko ikasketetan matrikulatutako emakumezko ikasleen tasa	↓	=

↑ Adierazleak gora egin du (epe luzean edo azken ikasturtean). ↓ Adierazleak behera egin du. = Adierazleak berdin jarraitu du.

Txostenaren helburua 20 adierazle gakoren bitartez UPV/EHUKo eta epe labur eta luzean izandako eboluzioaren ikuspegi globala ematea da, baita lortutako emaitzei, ekarritako balioaren, bere helburu sozialen betetze-mailaren eta antzeko ezaugarriak dituzten beste unibertsitate batzuekiko alderaketari buruzko oinarritzko xehetasunak ere. Honakoa 2008an informazioa biltzen hasi zen txostenaren zazpigarren edi-

zioa da; hortaz, dagoeneko datu fidagarriak ematen ditu UPV/EHUKo eboluzioari buruzko ondorioak ateratzeko, erakundearen gakoak diren bederatzi alorretan (informazio zehatzagoa izateko 20 adierazleetako bakoitzari buruzko banakako fitxak kontsulta daitezke). Azterketa osora UPV/EHUKo Gizarte Kontseiluko webgunearen bitartez hel daiteke (www.gizartekontseilua.eus).

(1. orritik dator)

campusetan ematen diren Giza Zientzietako Unibertsitate Tituluaren (Esperientzia Gelen) matrikula-prezioak onestea erabaki zuen, baita ikasturte honetan UPV/EHUKo irakatsiko diren ikasketak osagarrien 26 ikaslearen tasa akademikoak ezartzea edo baliozkotzea ere (egoki den moduan).

Azkenik, eta osoko bilkura berean, Kontseiluak Manu Angulo aukeratu zuen, aurreko Osoko Bilkura batean aukeratutako Maite Perez Hildagorekin batera, Gizarte Kontseilua Unibertsitateko Gobernu Kontseiluan ordezkari dezan. Osoko bilkurak UPV/EHUKo eskatutako aurrekontuaren hainbat aldaketa ere onetsi zituen.

AZTERKETAREN ONDORIO nagusien artean hauek nabarmendu daitezke:

- Irakaskuntzaren esparruko emaitzen adierazle hobekuntza: ikasketak uzteari buruzko eta arrakasta- eta errendimendu-tasek aldeko eboluzioa agertzen dute epe labur eta luzean, efizientzia nabarmen handiagoa erakutsiz. Aldi berean, «enpresetan borondatezko praktikak egiteko tasak» ere goranzko joera interesgarria erakusten du; hori bat dator geroz eta gehiago eskatzen den unibertsitatearen eta inugurko errealitate ekonomiko eta profesionalaren arteko elkarrekintzaren hobekuntzarekin.
- Krisialdi ekonomikoaren eragina agerikoa da oraindik ere «lorketa eta ezagutzen transferentzia» jardueretan.
- Aldiz, jarduera zientifikoari eta irakasleentzako prestakuntza-gaitasunari loturiko adierazleek hobera egin dute: «Irakasle eta ikerlari Doktore bakoitzeko ekoizpen zientifiko» eta «defendatutako doktoretza-tesien» irakasle bakoitzeko ratioa.
- Unibertsitateko ikasleak lanean txertatzeko tasa biztanleria orokorrarena baino askoz handiagoa bada ere, txosten honetan argitaratutako emaitzek aditzera eman dute lan-merkatura sartzeko zailtasunak (langabezia-tasa handiagoa, denbora

gehiago lana lortu arte), nabarmenagoak egiten direla Lanbide-k 2010ean egresatutako biztanleen artean egindako azken inkestan aurrekoan baino.

- «Internazionalizazioari» buruzko adierazleek hobera egin dute argi eta garbi: atzerriko ikasleak erakartzeari dagokionez, goranzko joera nabaria da. Master-irakaskuntzen nazioarteko erakarpentindarra askoz handiagoa da eta joera ere positiboa da.
- «Hizkuntza-normalizazioa» adierazleari dagokionez, hau da, «euskaraz ematen diren lehen eta bigarren zikloko graduatuko kredituen-tasan» hobera egin da aurreko ikasturtearekin alderatuta, beste zenbait hizkuntzatan, ingelesez batez ere, geroz eta kreditu gehiago eskaintzen diren testuinguruan, gainera.
- Azkenik, «Gizarte-erantzukizunaren» alorrean, «Emakumezko irakasle ikerlari doktoreen tasak» eta «graduak eta lehen eta bigarren zikloko emakumezko ikasleentzako tasak» bere horretan jarraitu dute aurreko datuarekin alderatuta.

Bestalde, txostenak adierazle horien emaitzak G9 taldeko unibertsitate publikoek lortutakoekin alderatzen ditu (Kantabria, Gaztela-Mantxa, Extremadura, Balear Uharteak, Errioxa, Nafarroa, Oviedo eta Zaragoza). Atal honetan zera ikus daiteke:

G-9 taldea	GASTU KORRONTEAK (1)	IKASLEAK (2)	(1)/(2)*100
Universidad de Cantabria	80.417.299,0	9.704	8.287,0
Universidad de Castilla La Mancha	140.441.068,5	26.627	5.274,4
Universidad de Extremadura	114.784.512,3	21.136	5.430,8
Universidad de Islas Baleares	68.091.863,9	11.959	5.693,8
Universidad de La Rioja	36.433.228,5	4.227	8.619,2
Universidad P. de Navarra	59.227.267,1	7.195	8.231,7
Universidad de Oviedo	152.355.583,0	20.868	7.300,9
Euskal Herriko Unibertsitatea	381.082.344,0	40.309	9.454,0
Universidad de Zaragoza	214.347.052,0	27.329	7.843,2
UNIBERTSITATE PUBLIKO PRESENTZIALAK, GUZTIRA	7.027.302.122,0	1.034.327	6.794,1

Iturria: Universidad Española en Cifras. 2013-2014

- UPV/EHU buru da transferentzia korrante/gastu korrante erlazioan eta ikasle bakoitzeko gastu korrantean.
- Saillkapenaren erdialdean dago ikasketak uzteko eta errendimendu-tasetan, baina arrakasta-tasaren goimuturrean dago.
- Diru-sarreraren taulan ere buru da (guztizko eurotan), oinarritzko ikerketa + ikerketa aplikatuan.
- Aztertutako unibertsitateetako bik bakarrik (Oviedokoak eta Errioxakoak) daukate Emakumezko irakasle eta ikertzaile eta Emakumezko irakasle eta ikertzaile doktore-tasa handiagoa.
- Saillkapeneko buru da 100 irakasleko tesi-kopuruari dagokionez.

G-9 taldea	Tesiak 100 irakasleko	Patente nazionalak 100 irakasleko
Universidad de Cantabria	13,9	1,8
Universidad de Castilla La Mancha	13,2	0,7
Universidad de Extremadura	13,7	1,5
Universidad de Islas Baleares	13,3	1,2
Universidad de La Rioja	14,6	5,4
Universidad P. de Navarra	12,1	0,7
Universidad de Oviedo	16,1	0,8
Euskal Herriko Unibertsitatea	19,0	1,0
Universidad de Zaragoza	18,6	0,7

Iturria: IUNE behatokia

UPV/EHU CYD TXOSTENAK AZTERTUTAKO NAZIOARTEKO SAILKAPEN NAGUSIETAN AGERI DA

UPV/EHU munduko irakaskuntza-erakunde nagusien kalitatea, ospea, indarra eta hobetzeko potentziala neur-tzen dituzten hiru nazioarteko sailkapen orokorretatik (ARWU -Shangaiko sailkapen gisa ezagunagoa, Times Higher Education -THE- eta Quacquarelli Symonds -QS-) bitan gutxienez ageri diren Espainiako 19 unibertsitateen artean dago. Egun batzuk direla argitaratutako CYD Fundazioaren azken txostenak atal bat eskaini dio «Espainiako unibertsitateek nazioartean hartzen duten tokiari»; bertan nabarmentzen denez, Estatuko 25 unibertsitate bakarrik agertu dira, 2015ean, sailkapen horietan eta horietatik sei bakarrik (Autónoma de Barcelona, Autónoma de Madrid, Barcelona, Complutense, Navarra eta Pompeu Fabra) egon dira hiru sailkapenetan azken urteotan jarraian. Euskal unibertsitate publikoa, bete bostekin batera, sailkapenetako bitan ageri da, Shangaikoan eta THE-n hain zuzen.

CYD txostenak egindako aipatutako sailkapenen emaitzen alderaketan egiaztatu daiteke Estatuko unibertsitateen presentzia globala argi eta garbi Europako erdialdeko eta iparraldeko herrialdeetako, herrialde anglo-saxoietako eta Japoneko unibertsitateena baino beherago dagoela, baina Italiako irakaskuntza-erakundeen antzeko mailan eta Brasil, Mexiko, India, Errusia edo Turkiaren moduko potentziak baino gorago; Iberoamerikako esparruan, gainera, lidergo-posizio nabarmena du.

Matematikaren nagusi

UPV/EHUri dagokionez azpimarratzekoa da, halaber, ARWU sailkapenean 2012az geroztik Estatuko 20 unibertsiterik nabarmengarrien artean dagoela, eta munduko 500 onenen artean, eta euskal unibertsitate publikoko Matematikako departamentua mundu mailako goiko postuetan dagoela –101. eta 150.aren artean– ARWU-FIELD eta ARWU-SUBJECT 2015 sailkapenetan.

Espainiako unibertsitateak

ARWU, THE eta QS-n 2015ean, bloketan

Unibertsitatea	ARWU	THE	QS
Universidad Autónoma de Madrid	201-300	301-350	186
Universidad Complutense de Madrid	201-300	401-500	226
Universidad de Navarra		301-350	265
Universitat Autònoma de Barcelona	201-300	146	190
Universitat de Barcelona	151-200	174	166
Universitat Pompeu Fabra	201-300	164	295
Universidad de Granada	301-400	501-600	461-470
Universidad de Sevilla	401-500	501-600	501-550
Universidad de Zaragoza	401-500	501-600	491-500
Universidade de Santiago de Compostela	401-500	501-600	551-600
Universitat de València	301-400	401-500	501-550
Universitat Politècnica de Catalunya	401-500	401-500	299
Universitat Politècnica de València	301-400	601-800	411-420
Universidad Carlos III de Madrid		601-800	314
Universidad de Alcalá		601-800	601-650
Universidad de Castilla-La Mancha		601-800	
Universidad de La Laguna		501-600	
Universidad de Murcia		601-800	701+
Universidad de Oviedo		501-600	
Universidad de Salamanca		501-600	551-600
Euskal Herriko Unibertsitatea	401-500	501-600	
Universidad Politécnica de Madrid		601-800	461-470
Universidade da Coruña		601-800	
Universidade de Vigo		601-800	
Universitat Rovira i Virgili		401-500	

Iturria: ARWU, THE eta QS

Espainiako unibertsitateak ARWU-FIELD ETA ARWU-SUBJECT 2015ean

Unibertsitatea	Alorra eta posizioa
Universidad Autónoma de Madrid	Zientzia (151-200), Bizitzaren zientziak (78-100), Matematika (51-75)
Universidad Carlos III de Madrid	Informatika (151-200), Ekonomia (101-150)
Universidad Complutense de Madrid	Matematika (101-150), Kimika (151-200)
Universidad de Granada	Ingeniaritza (101-150), Matematika (101-150), Informatika (42)
Universidad de Jaén	Informatika (51-75)
Universidad de Sevilla	Matematika (101-150)
Universidad de Zaragoza	Kimika (75-100)
Euskal Herriko Unibertsitatea	Matematika (101-150)
Universidad Politécnica de Madrid	Informatika (151-200), Ingeniaritza (151-200)
Universidade de Santiago de Compostela	Zientzia (151-200), Matematika (75-100)
Universitat Autònoma de Barcelona	Gizarte Z. (151-200), Bizitzaren zientziak (151-200), Medikuntza (51-75), Fisika (151-200), Kimika (151-200), Informatika (151-200)
Universitat de Barcelona	Zientzia (151-200), Bizitzaren zientziak (151-200), Medikuntza (51-75), Fisika (151-200), Kimika (101-150)
Universitat de València	Zientzia (101-150), Fisika (75-100), Kimika (101-150)
Universitat Politècnica de Catalunya	Orokorra (401-500), Informatika (101-150), Ingeniaritza (101-150)
Universitat Politècnica de València	Orokorra (301-400), Ingeniaritza (151-200), Matematika (76-100), Kimika (76-100), Informatika (101-150)
Universitat Pompeu Fabra	Orokorra (201-300), Gizarte-zientziak (101-150), Informatika (151-200), Ekonomia (51-75)
Universitat Rovira i Virgili	Kimika (151-200), Informatika (101-150)

Iturria: Bertan egina ARWUko datuekin